AMA MAITEARI

Ama maitea, entzun nazazu
nik esan nai dizutana:
zitalturikan etsai gaiztoa
zure kontra dago dana.
Euskal biotza eriya dago
ikusirik oyen lana,
ezta galduko ayek nai arren
zure onikan, ez, Ama.
Suturik daude biotz guztiak
juan nairikan zuregana
billatutzera aldan bezela
galdu nai dizuten fama,
ura billatzen egingo degu
danon artian aldana,
izan zaitean len bezelase
mundu onetan onena.

Pareik gabea izandu zera
oraiñdaño Españiyan,
danan oroitzen egon oi dira,
ama, beti zure erriyan.
Eman zizuten beren ustian
golpe charren bat gerriyan...
bañan panparroi ageri zera
Euskal danaren erdiyan.
Ama maitea, eman iguzu
komeni bada danari,
osasun ona, arpegi eiteko
gure etsai gaistoari.
Oyek dirade nere ustian
beren kanpoan ugari,
gu emen gaude kontu egiteko
alkarturikan, Amari.

JOSÉ M. ARRIETA.